

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2018 Foru Dekretua, martxoaren 27koa. Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaia eratzea eta haren osaera, antolaera eta funtzionamendua arautzea

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 105/2017 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa (2017-2020) eta jakinarazi zitzaion Batzar Nagusietako Euskara, Kultura eta Kirol Batzordeari, eztabaidatzeko.

Arabako Batzar Nagusietako Euskara, Kultura eta Kirol Batzordeak, 2017ko ekainaren 9an, Arabako Kultura Plan Estrategikoa (2017-2020) eztabaidatu zuen (ALHAO, 74. zk., 2017ko ekainaren 30ekoa).

Plan Estrategikoak epe ertaineko ikuspegi bat ezartzen du, plangintza jardun espezifikoak iradokitzeko. Arabako Foru Aldundiak egin beharreko kultur politikaren gida izan nahi du planak, jarduteko lehentasunak ezarriz, alde zuzenetik gogoeta estrategiko bat eginik kultur eta sormen sektoreek duten gizarte garrantzia aintzat hartuta.

Arabako Foru Aldundiaren esparruan, Euskara, Kultura eta Kirol Saila da plan estrategiko horri darizkion egitekoak gauzatzeko ardura duena, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, zeinaren bidez onetsi baitzen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak uste du komenigarria dela ildo estrategiko horri jarraitzea, Planari berari darizkion gogoeta eta gomendioekin bat etorritik, eta, hala, ildo estrategiko hori mamitu eta garatzeko eginkizunean parte hartu eragitea Arabako lurralde historikoko kulturaren zeresana daukaten agenteei. Arabako Kulturaren (2017-2020) Plan Estrategikoak sei programatan biltzen ditu garatu beharreko lehentasuneko ekintzak. Hala, "Koordinazio eta sare programak", besteak beste, "6.1.1" lehentasuneko ekintza definitzen du, "Planaren koordinazio orokorra eta jarraipena" izenekoa, zeinaren bidez bermatu nahi baita askotarikotasuna eta kulturaren sektoreak arlo pribatuan nahiz publikoan parte hartzea izan dezala, elkarlanaren bidez akordioak iristeari begira".

Xedapen hau Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren martxoaren 2ko 80/2018 Foru Aginduaren bidez hasi zen lantzen, eta, ondoren, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren martxoaren 8ko 89/2018 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen alde zuzeneko onespenera ematea proiektuari. Halaber, honako txosten hauek egin dira: araugintza eragineko txostena, genero eraginaren alde zuzeneko ebaluazioaren txostena eta ekonomia eta araugintza kontrolerako txostena; bestalde, legezketasun kontrola ere igarorazi zaio.

Eskumen materialaren oinarria datza 3/1979 Legea Organikoaren 37.3.a artikuluan (abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegorako autonomia estatutuari buruzkoa) eta 27/1983 Legearen 7. artikuluan (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoko foru organoen arteko harremanei buruzkoa), zeintzuen bidez lurralde historikoei esleitzen baitzaie beren erakunde antolamendu, funtzionamendu eta araubidearen gaineko eskumen eskusiboa, nori bere lurraldean. Foru organo horiei dagokie, 8.1.b) artikulua arabera, gai horretako "erregelamendugintzako" ahala.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, gobernuen eta administrazio publikoen araugintza ahala erabiltzean aplikatu behar diren

zenbait printzipio eta teknika ezarri ditu, oinarrizko jotzen dituenak. Hori dela eta, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan eta administrazio prozedura erkidearen oinarrizko araudian jasotzen diren arauketa onaren printzipioak betetz, Dekretu honen tramitazioan begiratu egin dira printzipio horiek, hain zuzen, beharrian, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun, eta efizientiaren printzipioak.

Beharrian eta eraginkortasun printzipioez den bezainbatean, proposatutako arauketaren justifikazioa da "Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaia" izeneko organoa sortu beharra eta haren osaera, antolaera eta funtzionamendua arautu beharra. Proposatutako arauketa da hori bermatzeko tresnarik aproposena.

Proportzionaltasun printzipioaz den bezainbatean, proposatutako arauketak ez die ez eskubiderik esleitzen pertsona administratuei ez betebeharririk ezartzen.

Segurtasun juridikoaren printzipioaz den bezainbatean, proposatutako arauketa ez doa Europar Batasunaren zuzenbidearen kontra ez eta gainerako ordenamendu juridikoaren kontra ere.

Gardentasun printzipioaz den bezainbatean, kontuan hartu behar da ez dela beharrezkoa kasu honetan aldez aurreko kontsultaren izapidea, 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 10.a) artikuluan aurreikusitakoaren konforme, xedapena antolamenduaren gaiari buruzkoa izanik. Arrazoi bera dela bide, entzunaldi eta informazio publikoko izapidea ez da beharrezkoa kasu honetan ere, 29/2017 Foru Dekretuko I. Eranskineko 13.4 artikuluaen bigarren paragrafoak dioenagatik. Onartu ondoren, ALHAOn argitaratuko da ezagutzera emateko, eta bertara eta berau prestatzeko dokumentuetara sarbidea izatea erraztuko da, gardentasunari buruzko araudiarekin bat etorritik.

Efizientiaren printzipioaz den bezainbatean, ez dakar administrazio karga gehigarririk, eta ez du behar, gainera, baliabide publikorik aplikatua izateko. Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaia sortzeak eta haren funtzionamendua dakarkeen gastu guztiak, era batekoak nahiz besteak, Arabako Foru Aldundiaren gastu aurrekontuko partida honen kontura izango dira: "kulturako plan estrategikoa ezartzea".

Ikusirik aginduzko txostenak.

Horregatik guztiagatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Bakarra Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaia eratzea, haren osaera, antolaera eta funtzionamendua arautuko duena foru dekretu honen eranskinean jasotzen den erregelamendua.

Xedapen gehigarria

Indarrean dagoen egitura organiko eta funtzionala egokitzea.

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartu zuenak, 3. artikuluan, sail horri atxikitako erakundeei buruzkoan, Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorren eta Jarraipenaren Mahaia gehitu zuen, aldundiaren erakundeen erregistroan esleitzen zaion zenbakiarekin.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Araugintzarako gaikuntza

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari ahalmena ematea dekretu hau garatu, interpretatu eta betearazteko beharrezkoak diren egintza eta xedapen oro jaulki ditzan.

Bigarrena. Indarrean sartzea. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Eranskina

Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren koordinazio orokorraren eta jarraipenaren Mahaiaren osaera, antolaera eta funtzionamendua

1. artikulua. Definizioa eta eratzekitzea

Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren koordinazio orokorraren eta jarraipenaren Mahaia kultura plan estrategikoan parte hartzeko organoa da, eta baita ere kultura plan estrategikoa koordinatzeko, haren jarraipena egiteko, hari buruz aholku emateko eta hari buruz txostenak egiteko organoa.

Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren koordinazio orokorraren eta jarraipenaren Mahaia honi eratzekiko zai: Arabako Foru Aldundian kulturaren gaiari buruzko eskumena duen Sailari.

2. artikulua. Gaia eta helburuak

Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaiari dagokion gaia da plan estrategikoan definitutako programak eta planari darizkion ekintzak koordinatzea eta haien jarraipena egitea.

Mahaia sortzen da Arabako kulturaren eta sormenaren sektoreko agente publiko eta pribatuaren parte hartzea sustatzeko, elkarrekiko komunikaziorako bide bat sortuz, hartara bakoitzak bere ekimenak, eskaerak eta iradokizunak egin ditzan Plana dela eta.

3. artikulua. Osaera

Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaia honako kide hauekin osatuko da:

- Mahaiburua: Kulturaren arloko Saileko diputatua edo hark eskuorde izendatzen duena.
- Mahaikideak: gehienez ere 24 izango dira, kulturaren eta sormenaren sektoreko kolektibo eta agente publiko nahiz pribatuak ordezkatzuz. Ahalegina egingo da beste sektore batzuetako pertsonen parte har dezaten, baldin haien interesak eta gomendioak kulturaren eta sormenaren garapena bere adierarik zabalenean eragiteko eta laguntzeko gai badira.
- Idazkaria: Kulturaren arloan eskumena izanik kultur jarduera sustatzea eginkizun nagusizat duen Saileko zerbitziburua izango da mahaiko idazkari. Mahaiaren bilkuretan hitza har dezake baina ez du botorik izango, eta kide anitzeko organoetako idazkariak eduki ohi dituzten eginkizunak beteko ditu.

4. artikulua. Mahaiburutza

Mahaiburuaren eginkizunak dira administrazio publikoetako kide anitzeko organoek orokorki izan ohi dituztenak, eta bereziki:

a) Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdia egiteko erabakia hartzea, bai eta bilkura horietarako gai zerrenda ezartzea ere, kontuan hartuz gainerako kideen eskaerak, betiere behar besteko aurretiaz egin badira.

b) Bilkuretan mahaiburu izatea eta bilkurak amaitutzat ematea, eta, halaber, eztabaidak gidatzea eta, behar izanez gero, kausa justifikatua tarteko, bertan behera uztea.

c) Ordenamendu juridikoak esleitzen dion beste edozein.

Mahaiburua ordezeko araubidea, haren ausentzia, gaixotasuna, aldi baterako ezintasuna, edo haren abstentzio eta errefusatze kasuak gertatzen badira, Arabako Foru Aldundian diputatuak ordezeko bera izango da.

5. artikulua. Mahaikideak

Mahaikideak izendatzeko, kulturaren arloan eskumena duen diputatuak foru agindua eman behar du, kolektibo eta agente batzuek eta besteek proposatuta, hala balegokio. Era berean, ahalmena izango du mahaiaren osaera aldatzeko kargua uzteak eta izendapenak gertatzen direnean.

Kulturaren arloko zuzendari titularra izango da mahaiko kideetako bat, bere karguari dagokionez.

Hautatzekoak diren mahaikideak, ordea, plan estrategikoaren indarraldirako izendatuko dira, eta plan estrategiko berria onartzearekin berritu beharko dira. Plan estrategiko baten indarraldia amaiturik ere, mahaikideak behin eta berriz proposatu eta izendatu ahalko dira planaren indarraldi berri bat hasten den bakoitzean.

Mahaikideak izendatzeko prozesua, bestalde, emakume eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren irizpidearen arabera gauzatu beharko da, berdintasunari buruzko araudietan jasotzen den bezala, eta, bereziki, 4/2005 Legean (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa) eta 3/2007 lege organikoaren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz (3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa).

Mahaian parte hartzeagatik ez da ordainsaririk izango.

Mahaikideek kausa hauengatik utziko dute kargua:

a) Epe jakin baterako izendatuak izanik, epea amaitu delako.

b) Mahaiburuak hala erabakitzeagatik, mahaiak proposatu ostean edo mahaiak ordezkatzan dituen antolakunde eta erakundeek eskatuta.

c) Uko egiteagatik.

d) Mahaikidea bera hiltzeagatik.

e) Kargu bat betetzen zutelako izendatuak izan zirelarik, kargu hura uzteagatik.

6. artikulua. Pertsona gonbidatuak

Mahaiburuak, landu beharreko gaiak direla-eta edo mahaikideetako edozeinek proposatuta, egoki irizten badio, bere esku izango du beste pertsona edo entitate batzuei deitzea gonbidatu gisa, gai zerrendako gairen batengatik, beren proiektuak, ekimenak eta iritziak ager ditzaten, beren eskumeneko arloetakoak. Gonbidatuek, bileretan, hitza izango dute, baina botorik ez.

7. artikulua. Deialdia

Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaia urtean bitan bilduko da, ohiko bilkuran.

Mahaiak, halaber, ezohiko bilkurak ere egin ahal izango ditu, mahaiburuaren ekimenez edo mahaikideen heren batek gutxienez fede emateko moduan eskaturik; kasu batean zein bestean, gai zerrenda proposatu beharko da.

Mahaiaren bilkuretarako deialdiak mahaiburuak egingo ditu, gutxienez hamar egun naturaleko aurretiaz, ohiko bilkuretarako bada, eta berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez, ezohiko bilkuretarako bada. Deialdian, bilkurarako tokia, eguna eta ordua adieraziko dira, bai eta gai zerrenda ere.

Formatu elektronikoan jakinarazi beharko dira deialdiak. Dokumentazioa ere prozedura berari jarraituz igorriko da, salbu eta, jatorrizko formatua dela eta, beharrezkoa bada paperean ere helaraztea, salbuespenezko kasuan.

8. artikulua. Bilerak

Organoaren bilkurak, ahal dela, bertatik bertara egin beharko dira; hala ere, urrutitik eta bertaratu gabe ere egin ahal izango dira, betiere bitarteko elektronikoen bidez ziurtatzen bada behar bezala gauzatuko direla, organo horien araubide juridikoari buruzko oinarrizko legedian aurreikusitakoaren arabera.

Mahaiaren eratzea baliouduna izan dadin, mahaikideen erdia izan beharko da bilkuran, eta, gainera, mahaiburuak eta mahaiko idazkariak ere izan beharko dira, edo haiek eskuorde izendatutakoak.

Lantaldeak eratu ahal izango dira, gai zehatz batzuei buruzko azterlanak egiteko ardura izango dutenak; mahaia erabakiko du nortzuek osatuko duten dena delako lantaldea.

Mahaiaren bilkuraren akta egin beharko du idazkariak, eta aktan, honako hauek zehaztu beharko ditu: nortzuk bertaratu diren, bileraren gai zerrenda, noiz eta non egin den eta zer erabaki nagusi hartu diren.

Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaia, Foru Dekretuak aurreikusi gabekoetan, 40/2015 Legeak kide anitzeko organoentzat ezartzen dituenen pean jardungo da (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa).